



Observatorio de Salud Pública de Navarra
Nafarroako Osasun Publikoaren Behatokia

PROFILEI BURUZKO TXOSTENAK OSASUN- ESKUALDE OINARRIZKOEN ARABERA

Erabiltzaileendako jarraibideak

Nafarroako Osasun Publikoaren Behatokiak osasun-eskualde oinarrizkoetako profilak argitaratzen ditu, honako datu hauek bildurik:

- ✓ **Testuingurua:** Osasun-eskualde oinarrizkoaren kokapena eta biztanleria, sexuaren eta adinaren arabera
- ✓ **1. atala:** Informazio orokorra
- ✓ **2. atala:** Adierazleen azterketa eta eskualdeko aktiboen maparako esteka
- ✓ **3. atala:** Profila, honako hauek biltzen dituenak: laburpena, iturria eta adierazleen definizioa (2. orrialdea)

Bigarren orrialdean 31 adierazle agertzen dira, bai osasun-mailakoak (osasun-arazoak), bai determinatzaile nagusiei dagozkienak (faktore sozio-demografikoak eta ingurumenekoak, bizi-estiloak eta osasun-sistema), baita nola banatzen diren ere desberdinkeria-ardatz garrantzitsuenen arabera. Adierazle horiek aukeratzeko, aintzat hartzen dira osasuna hobetzeko tokiko ekintzarako baliagarriak diren irizpideak, baita informazioaren garrantzia, erabilgarritasuna, baliozkotasuna eta fidagarritasuna ere. Komunitatearen osasunerako garrantzitsuenak diren beharrak islatzen dituzten adierazleak hautatu nahi izan dira.

Nola interpretatu profilaren irudia?

1. *Adierazleen taula.* Adierazle-multzo bat erakusten du, eta haietako bakoitzerako honako hauek zehazten: zein den erreferentzia-aldia, zenbat kasu dauden eskualdean, zein den adierazlearen balioa eskualderako (ehunekotan edo milako hainbestetan adierazita) eta Nafarroarako batezbestekoa.
2. *Profilaren irudia.* Barra-grafiko bat dauka, bi zutabek mugatua. Ezkerreko zutabean Nafarroan aurkitu den eskualde-daturik okerreana ageri da, eta eskuinekoan, hoberena. Grafikoko **puntu gorriak** adierazten du zer posizio erlatibo duen eskualdeak **Nafarroako Komunitate osoarekin** alderatuz ("Nafarroako batezbestekoa", grafikoko **marra gorri bertikala**).

Hala, egiazta daiteke ea balioa (**puntua**) Nafarroako batezbestekotik¹ (**marra bertikala**) gora edo behera dagoen.

Irudia behatuz hau jakinen dugu:

- ✓ **Puntu gorria barra berdearen** gainean dagoenean, emaitzak Nafarroako **hoberenen** artean daude.
- ✓ **Puntu gorria barra grisaren** gainean dagoenean, emaitzak Nafarroako batezbestekotik gertu daude.
- ✓ **Puntu gorria barra urdinaren** gainean dagoenean, eskualdearen emaitzak Nafarroako okerrenen artean daude.

3. *Inkesta bidezko adierazleak*. Adierazle batzuek traola bat daramate (**#**), eta horrek esan nahi du datu horiek **inkesta** bidez lortu direla. Halakoetan, ez da emaitza adierazgarriak lortzeko adina jende inkestatu osasun-eskualde oinarritzko bakoitzean. Osasun-eskualde oinarritzkoaren erreferentzia bat izateko, goragoko maila geografiko baterako emaitza kalkulatu da, eta maila geografiko horretako eskualde oinarritzko guztiei aplikatu zaie. Goragoko maila geografikoa **lurralde-antolamenduko planen zonifikazioa** da, eta honako eremu hauek ditu: Nafarroa Atlantikoa-Pirinioak (batera), Eremu Zentrala, Erdialdeko Eremuak eta Ebroko Ardatza. Datuak inkesta bidez eskuratu direnez eta lurralde zabalago bati buruzkoak direnez, kontu handiz hartu behar dira.
4. *Adierazgarritasuna*. Eremuko datu batzuek ("eremuko balioa") izartxoak (*****) daramate. Adierazle horietan, eremuko balioaren eta Nafarroako batezbestekoaren arteko aldea **estatistikoki adierazgarria** da, % 95eko konfiantza-mailarekin. Adierazgarritasun-kalkulu horiek bizi-estiloen, morbiditatearen eta osasun-sistemaren adierazleetarako egin dira. Moltzo horietako adierazleek izartxorik ez badute, horrek esan nahi du ezin dela ziurtatu Nafarroako batezbestekoarekiko aldeak adierazgarriak diren ala ez.
5. *Metodologia*. Dokumentuan adierazleen **iturriak** eta **definizioak** ageri dira. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, banakako [fitxak](#) eskuragai daude Behatokiaren webgunean.

¹ Kontuan hartu behar da eskualdea Nafarroako balioarekin alderatzen dela beti, baina Nafarroako balio osoa handia edo txikia den jakiteko, lehenik, Espainia osokoarekin alderatu beharra dago. Alderdi horretan interesa izanez gero, Behatokiaren webgunean begira dezakegu, [Nafarroako adierazleak](#) atalean.